

ERALDAKETA EKOSOZIALERAKO PROGRAMA KUDEATZEKO TEKNIKARIAREN HAUTAKETA PROZESUA

Prozesuan merituen balorazioa ondorengo irizpideetan eta honako puntuazioetan oinarrituta egingo da:

MEREZIMENDUAK	%20 gehienez
	Esperientzia egiaztatua 10 puntu • Administrazio publikoan 0,2 puntu hilero • Enpresa pribatuan 0,15 puntu hilero Pretakuntza osagarria 10 puntu • Prestakuntza osagarria 5 puntu • Tresna eta gaitasun digitalak 5 puntu
PROBA TEKNIKOAK	%55 gehienez
	• Gaitegi orokorra: 20 puntu (baztertzaila/ gutxienez 10 puntu froga praktikoa zuzentzeko) • Froga praktikoa: 35 puntu
ELKARRIZKETA	% 25 gehienez
Elkarrizketan, azterketa praktikoa egindako ariketen inguruko galderak egiteko aukera izango da, eta oinarri bezala erabili ahal izango du epaimahaiak.	• Koordinazio eta dinamizaziorako gaitasuna 15 puntu • Idazketa eta komunikazio argitasuna 2 puntu • Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna 3 • Lidergo tekniko (politika/eragile anitzekin) 5 puntu

MEREZIMENDUAK 20 puntu gehienez

- Esperientzia egiaztatua **10 puntu gehienez**
 - Administrazio publikoan 0,2 puntu hilabeteko.
 - Enpresa pribatuan 0,15 puntu hilabeteko

Enpresako lan ziurtagiria (Administrazioa izan edo enpresa pribatua izan) non adierazten den lan egindako denbora zehatza

- Prestakuntza osagarri egiaztatua honako gaitetan **10 puntu gehienez**

A.- prestakuntza osagarria: **gehienez 5 puntu** lortu ahal izango dira

- Ingurumena eta Trantsizio Energetikoa Masterra (puntu 1)
- Ingurumen Zientzietako Unibertsitate Masterra (puntu 1)
- Energia berri-tarrien inguruko prestakuntza (puntu 1)
- Hiri Mugikortasun Adimentsu eta Iraunkorreko Unibertsitate Masterra (puntu 1)
- Energia Sistema Adimendunak (puntu 1)
- Ekintzailatza eta Berrikuntza Irekia - MEINN (puntu 1)
- Ekonomia Sozial eta Solidarioan Masterra (puntu 1)
- Plangintza estrategikoan eta ebaluazioan espezializatzea (puntu 1)
- Parte-hartzeari eta prozesuak errazteari buruzko prestakuntza (puntu 1)
- **Lankidetzazko Gobernantza** (3 puntu)
- Politika publikoetako masterra / kudeaketa publikoko prestakuntza (puntu 1)
- Parte-hartze eta fasilazio metodologietan prestakuntza (puntu 1)

B.- tresna eta gaitasun digitala: **5 puntu gehienez** (nahiz eta 2 punturekin baloratu tresna bakoitza, guztira soilik 5 puntu lortu ahal izango dira. **Beraz, 3 tresna edo gaitasun dituzten hautagaiak gehienez 5 puntu lortuko dituzte eta ez 6 puntu**)

- Excel/Sheets maila aurreratua (2 puntu)
- Aurkezpenak (PowerPoint/Slides) eta dokumentazio profesionala (2 puntu)
- Datuen bistaratzea (Power BI edo antzekoa) (*baloragarria*) (2 puntu)

PROBA TEKNIKO 55 puntu gehienez

- Gaitegi orokorrean oinarritutako test frogak (baztertzaila) 20 puntu gehienez: gutxienez 10 puntu lortu beharko dira frogak praktikoa zuzentzeko aukera izateko.
- Frogak praktikoa 35 puntu gehienez

ELKARRIZKETA 25 puntu gehienez

- Koordinazio eta dinamizaziorako gaitasuna 15 puntu gehienez. Aintzat izango dira, eta oinarri izango dira, konpententziak aztertzerako orduan honakoak:
 - Datuekin benetako **diagnostiko sozioekonomikoak** egin izana.
 - **Eragileen mahaia** dinamizatu izana (mugikortasun mahaia, energia mahaia, elikadura mahaia, ...).
 - **Proiektuen gidaritza edo lidergoa** eraman izana
 - **Proiektuen bideragarritasunean** jardun izana, eta beraien segimendua egiteko adierazle eta aginte-koadroak egin izana
 - **Finantzaketa publiko eta europarraren oinarriak** (trantsizio berde eta sozialarekin lotutako programak).
- Idazketa eta komunikazio argitasuna 2 puntu gehienez
- Administrazio publikoaren testuinguruan lan egiteko egokitasuna 3
 - **Zuzenbide administratiboan** jakintza (administrazio publikoan jardun izana)
- Lidergo tekniko (politika/eragile anitzekin) 5 puntu gehienez

EPAIMAHAIAREN IZENDAPENA:

Epaimahaiaren osaera 2026/07/13 tik 2026/07/17 bitarteko astean zehaztuko da.

Bozka gabe baina ahotsarekin Lankidetzazko Gobernantzan parte hartu duten eragileetariko ordezkariaren batek prozesuan, aholkulari gisa, parte har dezakela jakinarazten da.

AZTERKETA EGUNA: 2026/07/22

AZTERKETA ORDUA: 9:00 Bi azterketak egingo dira egun berean eta jarraian. Gaitegi orokorrean oinarritutako test-a eta ariketa praktikoa.

- Lehen azterketa: 9:00-9:45 bitarte
- 15 minutuko geldigunea
- Bigarren azterketa: 10:00-12:00 bitarte

OHARRA: lehen azterketak (test galdetegia) 20 puntu balio ditu. 20 galdera erantzun beharko dira, eta galdera oker bakoitzeko 0,33 kenduko da. Derrigorrez 10 puntu lortu beharko dira 2. azterketa edo kasu praktikoa zuzentzeko aukera izan dezan. 10 puntu lortu ez dituzten hautagaiak prozesutik at geratuko dira.

SORTUKO DEN LAN POLTSAREN ERABILERA: Eraldaketa ekosozialerako programa kudeatzeko teknikari prozesuan gainditutako hautagaiak eratuko den lan poltsan barneratuko dira. Lan poltsa hau Debagoieneko Mankomunitateak Eraldaketa ekosozial arloan dituen beharretara bideratuko da soilik.